

## HONDAKIN ONENA, SORTZEN EZ DANA!

Aurten, 2015-16 ikasturtean, "hondakinak" gaia landuko dogu eta horretarako Aktibatu + programan parte hartzen ari gara.

Programa horren helburua ikastetxearen erosketa irizpideak eta hondakinen sorkuntza aztertzea da. Horrela, informazio hori edukita, hondakinak murrizteko aukera izango dogu langile eta ikasleen ohitura aldaketan bidez.

Aktibatu+ ekimenaren prozesuko faseak:

- Erosketa-hondakinen azterketa.
- Ekintza plana eta kanpaina.
- Erosketa-hondakinen 2. azterketa.
- Ospakizuna.

DBH 1 eta LH 6.mailako ikasleak lehenengo ikuskaritza egin dabe eta emaitzak jaso doguz. Beraz, hurrengo lana ekintza plana osatu eta kanpainaren bidez ikastolan zabaltzea izango da.

